

XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

833

HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: «18/2018 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalen hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren osaketa eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.»

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua xedatzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Era horretako hutsak aurkitu dira honako dekretu honetan: «18/2018 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalen hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren osaketa eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena» (2019ko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 30. zk.). Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

Gaztelaniazko argitalpenean, laburpenean, «Sumario 2019/30 (1/4)» orrialdean, eta dekretuaren izenburuan, hau esaten den lekuan:

«DECRETO 18/2019, de 5 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se regulan las elecciones a representantes sindicales de los funcionarios de la Ertzaintza, la composición del Consejo de la Ertzaintza y el procedimiento para la determinación.»

honela esan behar du:

«DECRETO 18/2019, de 5 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se regulan las elecciones a representantes sindicales de los funcionarios de la Ertzaintza, la composición del Consejo de la Ertzaintza y el procedimiento para la determinación de los delegados que correspondan a las organizaciones sindicales.»

Euskarazko argitalpenean, laburpenean, «2019/30 Laburpena (4/1)» orrialdean, eta dekretuaren izenburuan, hau esaten den lekuan:

«18/2018 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalen hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren osaketa eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.»

honela esan behar du:

«18/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalen hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren osaketa eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.»